

Bilbon, 1997ko urriaren 31n

J. Haritschelhar, euskaltzainburua
E. Knörr, buruordea,
P. Goenaga, idazkaria,
J. A. Arana, diruzaina,
P. Altuna,
P. Charritton,
J. L. Davant,
X. Diharce,
X. Kintana,
F. Krutwig,
J. M. Lekuona,
B. Oihartzabal,
P. Ondarra,
Tx. Peillen,
P. Salaburu,
J. San Martin,
I. Sarasola,
J. M. Satrustegi,
A. Urrutia
eta L. Villasante
euskaltzainak,
eta
J. L. Lizundia, idazkariorde-kudeatzailea.

Bilbon, Euskal Herriko Unibertsitateko
Ingeniari Eskolan, 1997ko urriaren 31n,
goizeko hamarretan, eman zaio hasiera
Euskaltzaindiaren hileroko batzarrari.
Bildu direnen izenak ezkerreko zutabean
jasotzen dira. Ezin etorria adierazi du E.
Larre jaunak.

Aurreko agiria onartzea

Uztaileko bilkuraren agiriri J. San Mar-
tinek egin dizkio ohar txo batzuk idatziz.
Horiek kontuan hartuta, ontzat eman da.

Euskaltzainburuaren hitzak

Euskaltzainburuak M.^a Dolores Agirre
andreaen heriotzaren berri eman die eus-
kaltzainei eta honen hilberri txostena egi-
teko eskatu zaiola Mikel Atxaga euskal-
tzain urgazleari. Txosten hau Donostian
egingo den hurrengo osoko bileran ira-
kurriko da.

1. Hizkuntza arauak

1.1.1. Gramatika: Aditz laguntzaile batuaren berrargitalpena dela eta

P. Goenagak egin du argitalpen berriaren aurkezpena. 1973koa bera dela adierazi du. Oraingo hau *Arauen* harpidedunei eskainia da. Orduko testua, bere hotzean eta soilean eskaini beharrean, hobeki ulertzearren, zenbait taulaz lagundurik ageri da oraingoan. Horrezaz gainera, zenbait ohar ere erantsi zaizkio sarreran.

Hurrengo bileran onartuko da argitalpen berri honetako testua. Dena dela, euskaltzainei gogorarazi zaie 1973an onartutakoaz ez dela ezer bozkatu behar. Onesteko eskatzen dena hasierako ohar horiek besterik ez dira.

Beti bezala, hilaren 20a arte eman zaie epea euskaltzainei beren oharrak helarazteko.

Ondoren, hiztegi batuko zerrenda eztabaidatzen hasi aurretik, eguerdian bilkura irekia egin ahal izateko euskaltzain osoen bilera gaur ohi baino laburragoa izango denez, eskuartekoei ekitea egoki ikusi du Euskaltzainburuak.

2. Eskuartekoak

2.1. Irrati maiztasunen banaketa dela eta Nafarroako gobernuari gutuna

Nafarroan berriz ere irrati baimen berriak banatzeko zorian dira eta hango agintariei zuzendutako gutun bat aurkeztu da, Satrustegi, Ondarra eta Zabaleta euskaltzainen oniritziarekin. Hurrengo asteazkenean biltzen omen da Euskararen Aholku Batzordea eta, horrenbestez, lehenbaitlehen onartzea komeni dela. Proposatuta diren aldaketak oso xumeak direnez, dagoen-dagoenean onartu da testua eta astelehenean bertan sartuko da erregistroan.

2.2. Nafarroako toponimia nagusiaren normalizaziorako irizpideak

Urriaren 10ean Euskaltzaindiaren Onomastika batzordeak Errenterian onartutako “Nafarroako toponimia nagusiaren normalizaziorako irizpideak” izeneko lanaren berri eman da.

1.2.1. Hiztegi batuko *ihabali-irudi* zerrendaren onarpena amaitzea

Zerrenda honen eztabaida aurreko bileran hasi zen baina, denbora faltagatik, ezin izan zen amaitu. Hiru euskaltzainek aurkeztu zituzten bere garaian zerrenda honi buruzko oharra eta ohar hauen azterketari ekin diote, berriz ere, euskaltzainek.

a. Aurreko bileran E. Knörren oharrekin hasi zen Euskaltzaindia, baina ez zuen amaitu. Hauek jarri dira, hortaz, gaur ere lehenbizi mahai gainean.

Ingurugiro hitzari buruz izan da lehenbiziko eztabaida. Ohargileak hitz horren ordez *ingurune* eskatzen du. Sarasola jaunak dio European zehar kurrutzen dutenak *ingurumen* hitzaren moduko ordainak direla. *Ingurumen*-en alde makurtzen da batzordea, ekologia gaietarako bereziki. Horrenbestez, hitz honi sarrera eskainiko zaio, adibide bat erantsiz.

Honako ohar hauek onartzea erabaki da: *inporta izan* “Herr.” marka ezartzea; *integrista* eta *integrismo* hitzak sartzea; *inurritu* aditzari *da* eredukoa dela erantsiko zaio; “*irakitu**, e. irakin”; *irakurlego*, 1. irakurletza. 2. * e. irakurleria, irakurleak; *irarri* dagoen bezala utziko da, adibide egoki bat erantsiz; *irian* hitza sartuko da, Ipar. dela esanez eta ‘inguruan’ esan nahi duela adieraziz. *Irriño* hitza alfabeto ordenan dagokion lekuan sartuko da.

Bigarren itzulirako utzi dira *inperatibo*, *iod*, *irakutzi* eta *irrigai*.

b. Ondoren, X. Kintanaren oharren azterketa egin da.

Ilbeltz-en sarreran, “h. urtarri” eranstea onartu da. *Iloba*-renean, testua aldatuko da, honela ezarriz: “senidearen semea nahiz alaba”.

Independente sartzeko eskaria ez da egoki ikusi lehen itzuli honetarako behintzat.

Indusmakina hitzaren inguruan sortu da eztabaida, ondoren. *Induska* uztea onartu da baina *induskatu*, *industu*, *indusmakina* etab. bigarren itzulian argitzekotan geratu dira.

Infernuratu-ren kasuan falta diren *-n*-ak sartzea onartu da. Halaber, *irozo*-ren sarreran *eutsi* jarriko da ageri den *eusti*-ren ordez. *Irtien*-en kasuan geroaldiko forma (*ir-*

tengo) ematen du zerrendak, baina besteetan horrelakorik egiten ez denez, hemen ere, lekuz kanpo dago. Kentzea onartu da.

Inteligentsia sartzea eskatzen du ohargileak. Geroko uztea proposatu eta onartu da. *Iragazi* eta *irarketa* hitzei buruzko oharrak ez dira ontzat eman.

c. Azkenik, A. Urrutiaren oharrak aztertzeari ekin dio Euskaltzaindiak.

Inaurkin-en ondoan, aditza ere sartzea ongi ikusi da: *ihaurri** e. inaurri).

Ihes-hodi hitza sartzea onartu da.

Ikasmahai eta *ikastun* ere onartu dira. *Ikasnahi*-ren inguruan eztabaida sortu da. Izena eta izenondo izan daitekeela esan behar da. Bestalde, *ikasgura* ere sartu beharko litzateke. Hala ere, zalantza sortu da *ikasnahi*, *ikasgura* den ala *ikasinahi*, *ikasigura*. Badaezpada, orain arte onartutako *nahi/gura*-dun hitzetan nola jokatu den ikustekotan geratu da batzordea.

Ilaun/ilaundu-ri eskatzen den adibidea eranstea onartu da. Honako ohar hau eranstiko zaio: "1. izond. *aztarna hutsal eta ilaunak*; 2. iz. 'errautsa', *berehala ikatzak ilaunez estaltzen dira*".

Ile-motots sartzea onartu da.

Ilki hitzarentzat adibideren bat eskatzen du ohargileak. *Atera*, *irten* esanahia duela esango da.

Industrializazio/industrializatu hitzak sartzeko eskatzen da. *Industrizalizatu* aditza sartzea onartu da, izenkia ez.

Bigarren itzulirako uztekoztat jo dira, bestalde: *ihinztagailu/ihinztailu*, *ikaragaitz/ikaragaiztasun*, *ikareria*, *ikus-onetsi/ikus-onespen*, *inbertitzaile/inbertitu*, *inguruar-bar*, *intseminazio* eta *iraungitasun*. Dena den, *inbertsio* sarrierari Matematiketako hitza dela erantsiko zaio. Hortaz, Heg. barik Mat. dela esango da.

Irabazpide hitzari ere leku egin behar zaiola uste du A. Urrutiak. Hasiera batean ontzat eman da baina *irabazPide* ala *irabazBide* behar duen zalantzan jarri da. Bozketa egin da eta idazkera bakoitzak hamarna boto lortu ditu. Beraz, mahai gainean utzi behar izan da kontua.

Azkenik, *irizpen* hitza sartzea onartu da.

Eta bilera hemen bukatu da, eguerdiko hamabiak eta laurdenetan. Hurrengoan eztabaidatzeko geratu dira, hortaz, zerrendan 'EZTABAIDA' oharra duten hitzak.

Euskaltzainburuak
Jean Haritschelhar

Idazkariak
Patxi Goenaga